

LEKEITIOKO UDAL BATZAREN ADIERAZPENA

13/13 SUMARIOA

2021eko uztailean Espainiako Nazio Entzutegiak zortzi euskal herritarren aurkako epaiketari ekin zion, euron artean Lekeition sustraiak dituen Arantza Zulueta. Pasa den azaroaren 5ean, ostera, amaitutzat jo ziren 13/13 sumarioaren baitako auzi saioak eta, beraz, epaituak epaiaren zain daude.

Ia lau hilabete luze pasatu dira uztailaren 12an 13/13 epaiketa hasi zenetik eta saio bakoitzean salatu egin dira urraketa guztiak, defentsarako eta epaiketa eskubidearen gutxieneko bermeak errespetatu ez direla argi utziz. Azken hamaika urteak gogorrek izan dira inputatuentzat eta epaiketak ondorio pertsonal larriak ekarri dizkie (inputatuetariko bat, Juan Mari Jauregi, gaixotasun larri baten ondorioz hil egin da, prozesu guzti honek ziurrenik eragin zuzena izan duelarik).

Sumario honen aurrean Lekeitioko udalbatzak, Eusko Legebiltzarreko EAJko, EH Bilduko eta Elkarrekin-Podemos-IUko talde parlamentarioek 2021eko uztailaren 9an adierazi moduan, salatu egiten du Estatuko sektore batzuek bultzatzen duten estrategia politiko-judiziala. Gure herrian irekitako denbora berriaren ostean, sektore hauek jarduera honekin jarraitzen dute, "dena ETA da" printzipio salatzailea oinarri hartuta. 13/13 makroepaiketa denboraz eta lekuz kanpo dago, eta gure herrian bizikidetzak demokratikoa eraikitzeke kontrako norabidean doa.

Adierazten dugu beti egon garela salbuespenezko legalitatearen aurka, eta berretsi egiten dugu oso larria dela 13/13 sumarioa bezalako epaiketekin jarraitzea, eta are larriagoa epaiketa honen ondorioz espetxeratzeak edo zigor kondenak ematea.

Berretsi egiten dugu gure konpromisoa guztion artean eraikitzeke bake eta bizikidetzan oinarritutako etorkizuna, euskal gizarteak eskatzen duen norabidean aurrera egitea oztopatzen diguten iraganeko estrategiak, jarrerak eta jokabideak alboratuz.

Hau horrela, eta kontutan izanik inputatuetariko bat, Arantza Zulueta, herrian sustraitutakoa da, Lekeitioko udal batzak adierazpen hau onartu eta hurrengoak erabakitzen du:

1. Adierazpen honen berri hurrengo erakundeei eman: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Arartekoa, Espainiako Kongresua eta Senatua, Espainiako Gobernua, Auzitegi Nazionalako presidentea eta Espainiako Herri Defendatzailea.
2. Udalak eskura dituen komunikabide eta sare sozial ezberdinetan zabaldu.
3. 13/13 sumarioaren inguruko dinamiketan parte hartzeko gonbitea zabaldu herritarrei eta udal batza osatzen duten zinegotziei.

Lekeition, 2021eko abenduaren 16an.